

BEZPERAN

Jatorrizko ideia: Arthur Barat, Zibel Damestoy,
Xabi Etcheverry eta Daniel San Pedro



© Sarah Witt

SORKUNTZA 2025

koregrafia eta musika BILAKA

Taula zuzendaritza Daniel San Pedro

PRODUKZIO DELEGATUA

**Scène nationale
du Sud-Aquitain**

BEZPERAN

SORKUNTZA | URTARRILA 2025

Jatorrizko ideia Arthur Barat, Zibel Damestoy, Xabi Etcheverry eta Daniel San Pedro

Taula zuzendaritza Daniel San Pedro

Musika Xabi Etcheverry, Patxi Amulet, Stéphane Garin eta Paxkal Irigoyen

Koreografia Arthur Barat, Zibel Damestoy, Ioritz Galarraga eta Oihan Indart

Bertsua Maialen Lujanbio Zugasti

Dantzaren kanpoko ikuspegia Martin Harriague

Dantzariak Izar Aizpuru Lopez, Arthur Barat, Zibel Damestoy, Ioritz Galarraga Capdequi, Oihan Indart, Ioar Labat Berrio, Maialen Marriezkurrena Artola eta Aimar Odriozola Pellejero

Musikariak Patxi Amulet, Xabi Etcheverry, Stéphane Garin eta Paxkal Irigoyen

Eszenografia Camille Duchemin

Argiak Alban Sauvé

Dekoratu, osagarrien ekoizpena Annie Onchalo, Frédéric Vadé

Jantzien ekoizpena L.Couture - Laetitia Campo

PRODUKZIO DELEGATUA

Scène nationale du Sud-Aquitain

KOPRODUKZIOA

Bilaka

CCN Malandain Ballet Biarritz

Office Artistique de la Région Nouvelle-Aquitaine

Espaces Pluriels - Scène conventionnée de Pau

TAP - Théâtre Auditorium de Poitiers, Scène nationale

Le CCN • Ballet de l'Opéra national du Rhin

Mille Plateaux - CCN La Rochelle

Théâtre des Quatre Saisons - Scène

conventionnée de Gradignan

Les 3T - Scène conventionnée de Châtelleraut

SUSTENGUAREKIN

Département des Pyrénées-Atlantiques
dans le cadre de l'aide à la création

SORKUNTZA AGENDA

Egonaldiak

CCN Malandain Ballet Biarritz

2024ko ekainaren 5etik 19ra eta azaroaren 19tik 22ra

Espace Pluriels - Saragosse antzokia, Pau

2024ko abenduaren 2tik 13ra

Scène nationale du Sud-Aquitain

Michel Portal Antzokia, Bayonne

2025eko urtarrilaren 6tik 23ra

LEHEN EMANALDIA

2025eko urtarrilaren 24an

Emanaldien Egutegia

24/25 urtaroa

Scène nationale du Sud-Aquitain

Michel Portal antzokia, Bayonne

2025eko urtarrilaren 24a ostirala, 25a larunbata,
26a igandea, 28a asteartea eta 29a asteazkena

Théâtre des Quatre Saisons, Gradignan

2025eko otsailaren 4an, asteartea

TAP - Théâtre Auditorium de Poitiers, Scène nationale

2025eko otsailaren 6an, osteguna

Espaces Pluriels - Le Foirail, Pau

2025eko otsailaren 19an, asteazkena

Barakaldo Antzokia Teatro, Barakaldo (ES)

2025eko otsailaren 21ean, ostirala

25/26 urtaroa (baieztatzekoa)

Festival le Temps d'aimer la danse, Biarritz

Les 3T - Scène conventionnée de Châtelleraut

Scènes de Territoire, Bressuire

...



TOPAKETA

Bezperan, Daniel San Pedro taula zuzendaria eta Bilaka kolektiboko kideen arteko hausnarketa luzeen fruitua da. Michel Portal Antzokiaren ateen aitzinean ezagutu ziren bi artista lagunak, 2019/20 urtaroko Hego Akitaniako sasoi irekitze dantzaldia kari.

Bilaka, dantza eta musika galdezkatzen dituen laborategi bat bezala martxan da, hauen garapen garaikidea duelarik helburu. Daniel San Pedroekin sentsibilitate artistiko komuna partekatuz, elkarrekin lan egiteko nahia begi bistakoa izan zen. Topaketa hau Bilaka kolektiboaren ibilmoldean kokatzen da, beste jatorri artistiko batzuetatik etorritako sortzaileekin aldizka lankidetzan aritzen baita. Begirada gurutzatu hauek euskal kulturaren berrikuntzan parte hartzen dute.

BILAKA **& DANIEL SAN PEDRO,** **HEGO-AKITANIAKO** **ESZENA NAZIONALAREN** **BI ARTISTA LAGUN**

INTENTZIO OHARRA

Daniel San Pedro

Proiektu hau Bilaka kolektiboko kide sortzaileekin ukan dudan topaketatik sortu zen. Hego Akitaniako Eszena nazionalean, Damien Godet zuzendariak, gu, artista lagunak, elkartu gintuen. Bilaka kolektiboa dantzan ikustean zuzenean jotzen zuten musikaren gainetik, ideia bat piztu zitzaidan eta *Ziryab* ikusgarriko Euskal Herriko biran gonbidatu sorpresak izateko proposatu nien. Lehen elkarlan artistiko honek elgarrekin ikusgarri bat sortzeko gogo handiagoa eman zigun. Nire jatorri euskaldun eta espainiarrek, aktore, dantzari eta musikariekin izandako diziplina anitzeko lan esperientziek, eta haien hitza eta kantua gehiago lantzeko forma eszeniko batera hurbiltzeko nahiak, batu gintuzten.

Bezperan, neguko ehortze gau baten doinu ilun bat eta ekin hasten da. Aspaldiko ohitura bat segituz, berria lehenik erleei ematen zaie, lasaitzeko, bertan egon daitezen eta haien ezta ematen segi dezaten. Negua hil da eta lurra esnatzeko garaia da, lurra otoizteko garaia da. Euskal Herrian, jainkoak ez daude zeruan, lurpean baizik. Zuraren izerdiak gora egiten du eta naturari bizia ematen dio. Odol bizia zainetan zehar ibiltzen da eta lur hau desiraz betetzen du. Bizi behar da, maitatu eta dantzatu behar da sasoi berriaren jakinarazteko. Natura Euskal Herriaren erroetan da. Praktika artistiko guztien inspirazio-iturria da, kantuak, musika, poesia eta Euskal dantzak barne. Sinesmenen, kondairen eta tradizioen oinarria da. Lurraren, gizakien eta ispirituen arteko lotura intimoa josten du. Beste artista batzuek ere, aspaldiko naturarekin lotutako tradizioetatik inspiratu dira, bereziki Nijinsky, bere obra nagusia *Le Sacre du printemps* sortuz. Nola ez ginateteke guk ere, gure aldetik, urrunetik bada ere, natura hortaz inspiratuko?

Zortzi dantzari eta lau musikari bildu ditugu, elgarrekin, musika originalaren doinuan, *Bezperan* izeneko istorio hau kondatzeko.


Bezperan euskarazko esamolde batetik dator, ahoz transmititutakoa, dudaz beteriko etorkizun hurbil baten proiektzio intimo bat ilustratzen duena. *Bezperan* ikusgarriak emazte eta gizon hauen istorioa kondatzen du, neguko gau batean, elurpean, bizitza galdu baten isiltasun ozenean, erleekin mintzatuko direnak haien lasaitzeko. Bilaka kolektiboak erregulariki natura elementuak jorratzen ditu bere ikusgarrietan. Horren harira, eta gaur egungo kezka etengabeen artean, atzoko, gaurko eta dudarik gabe biharko errituen funtzioa zalantzan jartzen du.



INTENTZIO OHARRA

MUSIKA

Piezaren musikak instrumentariumaren tinbretik abiatu ikerketa izanen du oinarri. Tresna organikoak izanen dira, sokazkoak, arrabita, gitarra eta ttunttuna bezala, haizetakoak esku soinua bezala baina baita ere perkusio andana bat. Errepertorio herrikoa berezitzen dituen testurak eta melopeak erresonantzian ezartzea izane da idazketa lanaren mamia. Dantzarako musika, bereziki ahoz transmititutako errepertorioan delarik, bizia eta ebolutiboa da dantzariak idazketako parte direlakotz. Maiz erraiten da haiek direla partidura. Lau musikariek dute *Bezperanen* musika joko eta orainak eragin zuzena ukanen du tenpo, kadentzia, eta erritmoetan, sonoritate berezi batentzat.



© Sarah Witt

INTENTZIO OHARRA

DANTZA

Bezperan ikusgarriko dantza, zortzi dantzarientzat idatzia izanen da, urrezko zenbakia tradiziozko euskal dantza anitzetan, hala nola makil dantza edo zinta dantza bezalako ihauteri errituetako dantzetan. Nijinskyk *Le Sacre du printemps* baletean erakutsi zuen energia inspirazio iturri handia da dantzariarentzat : gorputzaten irudi gordina, organikoa, basatia, erritmikoa eta batzuetan bortitza, dolua, desira, sentsualitatea eta norberaren animalia irudikatzeko bidea izanen duena. Argi berri baten, oreka berri baten deia onartzen duen dantza bat.



© Sarah Witt

« NIJINSKYK
UDABERRIAREN
SAGARATZEA-N
ERABILITAKO
ENERGIA
OROITARAZTEN
DUEN
GORPUZTASUNA »

ESZENOGRAFIA


Marrazkiak / Camille Duchemin, eszenografoa

Herioa / Erleen Abisua

**NEGUA HIL DA,
LURRA ESNATZEKO
OTOIZTEKO
GARAIA DA.**



Zinta dantza



**BATASUNAREN
PLAZERRAREN
APOTEOSIA
BEZALAKO DANTZA.**

**OSPATZEN DU
HARMONIA
NATURAREKIN
ETA ELEMENTUEKIN.**

BILAKA

Baionan kokatua, Bilaka artista kolektibo bat da, Euskal Herriko musika eta dantza herrikoien aktibazio garaikidean lan egiten duena. Euskal kultura mundu garaikidean nola bizi den galdezkatzuz, bere lana bi ardatzetan garatzen du : idazkera berriko ikusgarrien sorkuntzan, Euskal ondare immateriala oinarritzat hartuz eta euskal kulturaren praktika bizia eta lotura sozialen bultzatzeko hitzordu berri batzuen sortzean, dantzaldi, erritu eta hitzordu herrikoiak sortuz.


Urte guttitan, Bilaka euskal kulturaren aktore ezinbestekoa bihurtu da. Gaur egun, kolektiboa Hego-Akitaniako Eszena nazionalaren «artista laguna» da eta Malandain Ballet Biarritz Zentro Koreografiko nazionalaren «lurralde artista» da. Kolektiboaren azken produkzioak Frantziako hainbat eszenatoki nazionaletan eta eszenatoki hitzartuetan programatu dira, Pariseko Théâtre de la Ville bezala. Bilaka, Euskadi eta Nafarroako antzoki sareetan esportatzen da eta nazioartean garatzen jarraitzen du.

Sorkuntza lanaz gain, Bilaka, gazte belaunaldien Euskal dantza eta musika tradizionalaren praktikari lotua da eta Euskal Kultur Erakundea eta Iparraldeko Dantzarien Biltzarrekin lankidetzan, euskal dantzako goi mailako ikasketak garatzen laguntzen du Maurice Ravel Iparraldeko Kontserbatorioan.

G

R

A



B

I

O



Lurraldeko instituzioek Bilaka laguntzen dute. Besteak beste Euskal Hirigune Elkargoak, Baionako hiriak, Hego-Akitaniko Estatu Eszenak, Malandain Ballet Biarritz Zentro Koreografiko nazionalak, Euskal Kultur Erakundeak, Eusko Jaurlaritzak, Akitania Berria Eskualdeak eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduak.

F

I

A

DANIEL SAN PEDRO

Madrilgo Kontserbatorio Nazionalean formatu ondoren, besteak beste Wajdi Mouawad, Marcel Maréchal, Laurent Serrano eta Fabrice Melquiotentzat antzestu du. Les Petits Champs Konpainiarentzat, eszenaratu ditu : Federico García Lorca, Clément Hervieu-Léger-en *Le Voyage en Uruguay*, Brigitte Lefèvrekin zuzendu zuena *Nijinskiren Egunkaria*-n. « Taldeko gizona da, inoiz ez bakartia. Taula zuzendaria, taldearekin bizi da, denentzat jatekoa prestatzen du, anaia, aita eta ama aldi berean! Aktorea, biziki sendoa da eta lankide bikaina dela frogatzen du. Ustekabekoari aurre egiteko beti konponbide bat du! Antzerkiak gainditzen du. » Clément Hervieu-Léger

Daniel San Pedro aktore eta taula zuzendari espainiarra, Les Petits Champs Konpainiaren zuzendariordea, baita Parisko Opera Nazionaleko Dantza Eskolan antzerki irakaslea ere. Daniel San Pedro Arte eta Letren Ordenako Zalduna da.

Scène nationale du Sud-Aquitain

1 Édouard Ducéré karrika - 64100 Baiona

difusioa : Damien Godet > +33 (0)6 63 57 27 55 – damien.godet@scenenationale.fr

produkzioa : Roxana Ghita > +33 (0)6 13 97 06 19 – roxana.ghita@scenenationale.fr

• (scenenationale.fr

BILAKA

OLDEAK ESTUDIOA BAIONA

3 Jean Darrigrand etorbidea - 64100 Baiona

produkzioa : Camille Balaudé > +33 (0)6 11 55 23 01 – camille@bilaka.com



bilaka.com